

Maria-Jose Azurmendi

### **Txillardegiren alderdi soziolinguistikoa**

Txillardegiren omenaldian parte hartuko al nuen eskatu zidatenean izan nituen hasieran nere zalantzak, baitnekien ez zitzaidala erraza egingo bere konplexutasuna ondo laburtzea. Baina gehiago zehaztuz, Txillardegiren “alderdi soziolinguistikoa” aurkezteko izango zela nik aztertu behar nuena esan zidatenean, orduan ausartu nintzen baietza ematen. Egia esan, pozik jaso nuen gonbitea, besteak beste Txillardegiren alde egiteko aukera ona zelako. Badirudi omenaldia egiteko arrazoien artean bat dela orain irailean bete berri dituela 75 urte, horrela izanik zorionak zuri, Txillardegi. Hala ere ez da lehenbiziko omenaldia, orain bost urte ere egin zitzaiolako, orduan 70 urte bete eta erretiroa hartu zuenean (nahiz eta geroztik irakasle emerito bezala mantendu UPV/EHUan): *Txillardegi. Jakin, 114* (1999) eta Tx. Ormaetxea (arg.), *Txillardegi, lagun giroan*. Donostia: UEU (2000); biak argitalpenak dira. Aurten, berriz, beste omenaldia ere egin zaio, Donostia udaleko liburutegian, orain egun gutxi, hitzaldi batzuk emanez. Horrela, oraingo omenaldia bilakaera baten barruan kokatzen dela esan daiteke eta honek bultzatzen gaitu sakontasunean ibiltzera: horixe da lortu nahi dudana.

Txillardegi ezagutzen dudala esan dezaket, baina neurri batean bakarrik, neurri apalegian agian, eta berehala kezkatu naiz zenbait erreferentzi lortzen, zerbait interesgarria esateko. Saio honetan lortu dut, adibidez, Txillardegiren bibliografia ia osoa (Pruden Gartziaren bitartez: mila esker), 2002 urtetarainokoa behintzat, 150 orrialdetan, eta alderdi asko jorratu dituela eta arlo askotan idatzi duela berehala ikusi dut. Hala ere hau guztia adieraztea ez da izango nere lantxo honen helburua, gehiegia ere litzateke kontestu honetarako; egingo dudana da bakarrik soziolinguistikarekin gehien lotzen diren lanak eta ekintzak hartu eta batzuk aukeratu, nere ustez kontestu honetan nahiko adierazgarriak eta interesgarriak izan daitezkeen batzu.

Txillardegi aurkezteko hasiko naiz *Berria* egunkarian (2004/9/5) berak esaten duen honekin: “Nire ardatza, ekintza mailan, euskara izan da. Euskal Herria euskararen herria da etimologikoki ere, eta euskara gabe ez dago Euskal Herririk. Borroka politikoa ondorio bat da. Euskara gabe Euskal Herririk ez dagoela pentsatzen dudalako sortu da planteamendu politiko bat. Euskarari indarra eman behar zaiolako eta tresnak behar dituelako. Ni ez naiz euskaltzale bihurtu politikoki abertzalea naizelako, baizik eta alderantziz; ni euskaltzale nintzen, eta euskaltzale izateak logikaz eraman nau planteamendu politiko abertzaleetara”; hau da, euskara da erdigunea, euskararen alde egitea da ardatza eta horixe da beste guztia estrukturatzen eta azaltzen dituen. Horrela ikusita, Txillardegik esan eta egin dituen guztiak erlazionatuta daude eta euskararen inguruan kokatu behar dira, honek esan nahi du zuzenean edo zeharka soziolinguistikarekin zerikusia dutela.

Txillardegiren soziolinguista alderdia adierazteko bi bide erabiliko ditut: 1) bere bizitzan oinarritzen dena, 2) bere argitalpen batzutan kokatzen dena.

### **Txillardegiren bizitzan joera soziolinguistikoa**

Egia bada gorago aipatu duguna, badirudi Txillardegiren bizitza osoa soziolinguistika arloan erabat sartzen dela esan dezakegula, zuzenean edo zeharka euskararekin zerikusia izango duelako. Hau adierazteko erabil dezakegu bere bibliografia zabala eta aurreko omenaldietan

esandakoa, alde batetik, eta bere joera bestetik. Ondoan alderdi aipagarri batzuk azalduko ditugu:

- Txillardegiren biografia berezia da, alderdi askotatik begiratuta. Akademikoki, ingeniaria eta hizkuntzalaria da. Profesionalki, ingeniari eta gehienbat hizkuntzalari bezala lan egin du; batipat, irakaslea izan da Deustuko Unibertsitatean lehenbizi eta gero Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU), honetan Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, hezkuntza arloan (gaur egun bertan irakasle emeritua dugu). EHUan irakatsi dituen irakasgaiak, bai Pedagogia titulazio barruan eta baita doktoratu ikastarotan ere, erabat soziolinguistika arlo barruan kokatzen dira, batzutan espaineraz eta gehienetan euskaraz irakatsiz: Hizkuntzaren Pedagogia, Hezkuntza eta Elebitasuna, Linguistika eta Hezkuntzaren Ereduak, Hizkuntz Plangintzaren Ikuspegi Sozio-pedagogikoak, Unibertsitate Elebidunak European eta Ameriketako, Hizkuntza Komunitatearen Analisi Matematikoa, ... Irakasgaien izenak beraiek edukiak adierazten dituzte, gutxi gora-behera: alde batetik soziolinguistikako gaiak, hezkuntza eta pedagogia munduekin lotuz; bestalde disziplina anitza arteko ikuspegi originala erabiliz (linguistika, soziolinguistika, soziologia, pedagogia, fisika, matematika); beti erne, guretik kanpo ere egoerak nola gauzatzen diren ikusiz, gero ondoriak ateraz gure egoera hobeto ulertzeko. Unibertsitateko egoera tradizionalen zenbat berrikuntza aberats sortu dituen Txillardegik! Baina unibertsitatekanpo ere irakaslea izan da, idatzi dituen lan gehienak helburu pedagogikoa dutelako, bai teorikoak direnak eta baita praktikoak direnak ere, euskararen alde egin behar dena argi erakutsiz. Guzti honegatik, Txillardegi zerbait izan bada irakaslea izan dela eta dela esan beharra dugu.
- Berezia da Txillardegiren biografia baita euskararekiko izan duen eten gabeko atxikimenduarengatik ere, honek bere iharduera zuzena markatuz: “orain dela 50 urte eta egun, ia berdin pentsatzen dut” esateraino (*Berria*, 04/9/5). Hau lotzen da bere libertate intelektual sakonarekin, baita bere iritzia kritikoki mantentzeko libertate ausartarekin ere. Horrela ulertzen dira bere jarrera eta ekintza asko, adibidez: 1963an Euskaltzaindian aurkeztu zuen bere dimisioa, Euskaltzaindiak euskara batuaren alde nahiko egiten ez zuelako; unibertsitateko ekintza batzuen aurrean boikota egin zuen, euskalduntasun dignitatearen kontra zirelako; bere abertzaletasun usteak mantentzearen, ETArekin kontra agertu da, baita alderdi politikoz aldatu da ere; etabar. Nahiz eta horrela itxuraz behintzat pertsonalki galdu izan, zenbait lagun galdu eta zenbait etsai egin, zigortua izan ere; horregatik, adibidez, agian ez da euskaltzain osoa oraindik, harrigarria, nahiz eta euskaltzain izateko merezimendu sobera izan. Erabat aipagarria bere buruarekiko zuzentasuna mantentzeko grina!. Azaleko kontraesan batean bizi izan da: alde batetik heterodoxoa, kritikoa, eztabaida-iturri eta intsumisioa agertu da askotan, nahiz eta beti kontsentsu berriaren atzetik joan, bere ibilbide zuzenean, beste aldetik, horrela segurtasuna inspiratuz. Benetan Txillardegi eredu bat da.
- Txillardegiren bibliografian sartzekoan berehala atentzioa ematen du gaurkotasunean bere inplikazioa: horren sari idazten duelako, bertako egunkari, astekari eta aldizkari ezberdinetan, euskararekin zerikusia duen edozein momentuko gertakizunari buruz. 1956 urtean hasi eta oraindano ehundaka artikulua argitaratu ditu euskarazko eta euskararekin erlazionatzen diren agian aldizkari guztietan, bai Euskal Herrian bertan eta baita kanpoan ere argitaratutakoetan; kronologikoki: *Egan*, *Euskera*, *Euzko-Gogoa*, *Yakin* eta gerorago *Jakin*, *Zutik*, *Eusko Lurra/Tierra Vasca*, *Enbata*, *Zeruko Argia* eta gerorago *Argia*, *Branka*, *Saioak*, *Salvatore Mitxelena*, *Zabal*, *Anaitasuna*, *Herria*, *Hitz*, *Garaia*, *Fontes Linguae Vasconum*, *Mundaiz*, *Punto y Hora de Euskal Herria*, *Muga*, *Iker*, *Zutabe*, *Isilik*, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, *Larrun*, *Euskaldunon Egunkaria*, *Ele*, *Uztaro*, *Ezpala*, *Orereta*. Hauetan gai ezberdinak tratatzen dira, baina beti momentuan gertatutako zerbaitekin erlazionatuz, horrela bere gizartean ondo txertatuta eta oso inplikaturik zegoela adieraziz. Aipagarria, benetan, horrelako gaitasun handia. Euskararekiko konpromisoa hartuz, artikulua gehienak euskaraz daude idatzita, baita espaineraz edo frantsesez ere batzutan. Antzean esan daiteke bai bere lan handiagoei buruz, liburu eta txosten edo kapituluei buruz, gehienbat

1970 hamarkadaz geroztik, baita bere ekintzei buruz ere 1950 hamarkadaz geroztik. Euskararekin eta Euskal Herriarekin zerikusia izan duen ekintza garrantzitsu askotan parte hartu du, halako nonahikotasuna adieraziz. Alderdi honetatik begiratuta, Txillardegiren erreferentzia beharrezkoa gertatzen da euskararen eta Euskal Herriaren historian.

- Euskararen normalizazioa izan du Txillardegik kezka nagusia eta, horretan, batasuna, berrizale eta gaurkotze alde agertu da beti. Hau modu ezberdinetan adierazten du; adibidez: irekia eta erne agertzen delako beste hizkuntzetan eta herrietan gauzak nola egiten edo gertatzen diren ikusiz, ondorioak euskararekiko (eta Euskal Herriarekiko ere) aplikatu nahian beti. Horrela, bere artikuluetan (2002 urterainoko bibliografian) ondoko hizkuntza eta herri edo hiri aipatzen dira, kronologikoki: suomiera, Praga, Bratislaba, Berlin, Lobaina, Eskozia eta Gales, Québec, Suezia, Noruega, Paris, Katalunia, Tibet, Okzitania, Amerika (orohar), Yugoslabia, Irlanda (IRA, Eire, Belfast), Idaho, Grezia, Palestina, Arjelja, Armenia, Nevada, Israel, Sud-Tirol, San Francisco, Hopi, Sioux, Gent (eta Belgika orohar), Bolivia, A Corunha (eta Galizia orohar), Finlandia, Estonia, Eslobakia, Lituania (eta Baltiko herriak orohar), Txetxenia (jadanik 1994ean), Chiapas, Bruselas, ... Hau da, irekitasun eta gaurkotasun handiak adierazten ditu Txillardegik bere bizitza osoan, euskararen beharrei erantzun nahian. Alde honetatik begiraturaz, Txillardegiren ezagutza oso zabala da eta honek autoritatea ematen dio soziolinguistikan esaten dituen gauzetan. Hau horrela izanik, oraindik ere aipagarriagoa gertatzen da bere joera zuzena euskararekiko eta Euskal Herriarekiko.
- Euskal literaturan ere soziolinguistikoki garrantzi handia dute Txillardegiren eleberriek, gutxienez bi zentzu hauetan: 1) euskal literatura tradizionalan eten bat sortzen dutelako, bai edukiaz eta baita formaz ere, literatura berritzea suposatuz; 2) euskararen normalizazio prozesuan, berriz, mugarrak izango diralako: bai “corpus” alderditik ikusita, euskara batuaranzko bidea jarraitzen dutelako, baita “estatus” alderditik ere, euskara literatura modernoan sartuz, Europako momentuko giroan (nahiko giro existentzialista) txertatuz, berritze eta egokitze bat eta prestigio handitze bat suposatzen dutelako. Euskal literatura berritzearen kezka, prosan gutxienez, oso goiztiarra du Txillardegik, bere eleberriak noizkoak diren kontutan hartzen badugu behintzat: *Leturia-ren egunkari ezkutua*, 1957 urtean lehenbizi argitaratu zen eta 1995ean 4. edizioan argitaratua berriro ere (ingelesez ere argitaratu zen 1986 urtean); *Peru Leartzako*, 1960ean lehenbizi eta 1983ean 3. edizioan argitaratua; *Elsa Scheelen*, 1978ean lehenbizi eta 1987ean 3. edizioan argitaratua; *Haizeaz bestaldetik*, 1979ean argitaratua; *Huntaz eta Hartaz*, 1983ean 2. edizioan argitaratua. Esan daiteke, Txillardegi izan dela, agian Saizarbitoriarekin batera, euskal eleberriaren gaurkotzearen aurrekaria. Horrela, 1950 hamarkadaz geroztik ematen den euskal berpizkundean parte hartzen du, abesti berria, ikastolak, Euskal Idazkaria lehenbizi eta Euskaltzaindia gero, alderdi politiko berriak eta bestelako adierazpenen artean kokatuz.
- Txillardegi erne dago bere inguruarekiko, modu ezberdinetan. Adibidez, gertatzen da zenbait pertsonaia aipatzen dituenean, bertako eta kanpoko, batzutan hil direlako eta bestetan zerbait interesgarria adierazten dutelako; artikuluetan adibidez: Camus, Rikardo Arregi, Etxebarrieta, Russell, Kennedy, Malraux, René Lafon, Einstein, Soljenitsyne, Mitxelena, etabar luzea. Edo adibidez ere zenbait kongresu eta mintegi soziolinguistikoetan parte hartzen dutelako: First International Basque Conference in North America kongresuan 1982ean, Eibarko mintegian 1984ean, Leioako Hizkuntza Minorizatuen Soziologia kongresuan 1986ean (nahiko enblematikoa izan zena), Eibarko Nazioarteko Hizkuntza-Hezkuntza Jardun-Ihardunaldiak-ean 1990ean (EHUak antolatua), Finlandiako Linguistic Rights of minorities-ean 1994ean, Santiagoko Simpósio Internacional da Línguas Europeas-ean 1995ean, nazioarteko kongresuak eta, horregatik, hauetan hizkuntza ezberdinetan mintzatuz. Parte hartu du ere unibertsitate ezberdinetako ikastaroetan, gehienbat UEUko udako ikastaroetan, hasieratik, soziolinguistika arloan hain zuzen. Lehenago aipatu dugun bezala, Txillardegi beti irekia, erne, irakasle agertzen zaigu.

- Laburbilduz, esan dezakegu Txillardegi dela euskal intelektual handienetakoa Euskal Herrian, XX. mende erdiaz geroztik, zenbait arlotan, soziolinguistikan ere. Nahitaezko erreferentea da, aipagarria, edozein euskararekiko soziolinguistikako gaietan. Horrek ez du esan nahi, ordea, berak esaten duenarekin adostasun errezik lortzen denik, alderantziz baizik. Askotan ez da ulertua izan, agian ez ulertua gehiago ez onartua baino, momentuan behintzat, sortzaile aurrekaria eta futurista izan delako askotan.

### **Txillardegiren argitalpenetan joera soziolinguistikoa**

Gorago esan bezala, bere argitalpen guztiak, zuzenean edo zeharka, denak soziolinguistika arlo barruan sar daitezke. Hala ere, badira batzuk zuzenago lotzen direnak eta aipa daitezkeenak; hauen artean, artikuluez edo kapituluez gain (hauek ez ditugu aipatuko orain), txosten luzeak eta liburuak daude, kronologikoki:

- (1974) *Euskara batua: zertan den*. Oinati: Franciscana Aranzazu. (3. edizioa 1977an)
- (1977) *Oinarri bila: morfosintasian eta fonologian*. Donostia: Alvarez-Lorea.
- (1977) Estudio crítico de algunas lenguas minoritarias. In *Euskararen liburu zuria/El libro blanco del euskara*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (1978) *Euskal Herriatik erdal herrietara*. Donostia: Txillardegi.
- (1978) *Euskal Gramatika*. Donostia: Ediciones Vascas.
- (1979) *Euskal aditz batua*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (1979) *Fonologiaren matematikuntza*. Bilbo: UEU.
- (1980) *Euskal Fonologia*. Donostia: Ediciones Vascas.
- (1980) La lengua vasca. In *Historia de Euskal Herria*. Donostia: Ediciones Vascas.
- (1982) (zuzendari-zuzentzailea) *Hizkuntzalaritza: Hiztegia/UZEI*. Donostia: Elkar.
- (1983) (zuzentzailea) *Euskal dialektologiaren hastapenak*. Iruñea: UEU. (1987an 2. edizioa)
- (1984) *Euskal azentuaz* (Doktore-Tesia). Donostia: Elkar.
- (1984) *Elebidun gizarteaz azterketa matematikoa*. Iruñea: UEU.
- (1987) (Koordinatzaile-zuzentzailea) *Euskal dialektologiaren hastapenak*. Bilbo: UEU.
- (1990-) *Bat. Soziolinguistika aldizkariako hitzaurreak eta artikulak*.
- (1994) *Euskal Herria helburu / (1997) Euskal Herria en el horizonte*. Tafalla: Txalaparta.
- (1994) et Xabier Isasi. *Soziolinguistika matematikoa*. Bilbo: UEU.
- (1996) *Lingua Navarrorum*. Hernani: Orain.
- (2001) *Hacia una Socio-Lingüística Matemática*. Donostia: SEI.
- (2004) *Euskararen aldeko borrokan. Euskalgintza eta euskalaritzako idazlan hautatuak, 1956-1983*. Donostia: Elkar.

Ikus daitekeen bezala, produkzio handiko autorea eta langile kementsua da Txillardegi. Ildo ezberdinak jorratu baditu ere, euskararen batasunaren edo “corpusa” normalizazioaren aldeko ingurukoak dira gehienak, gero “estatusa” normalizazioaren aldeko ingurukoak. Luzaroko eduki hauek bat datoz Txillardegiren eguneko kezka nagusi batzuekin: 1) euskararen ahozkatzea, euskararen prosodiaren batasuna egin beharra, euskara batua prozesuan beste pausoa, corpusaren normalizazio aldetik, alde batetik, 2) euskararen erabilera, bere funtzionaltasuna gizarteaz, euskararen bizindarra eta normalkuntza mailaren adierazpena, estatusaren normalizazio aldetik, bestetik.

Luzeegia litzateke, kontestu honetarako, argitalpen hauekiko azalpen zehatza ematea; gainera gaurko beste bi hitzaldietan esango direnak (Txillardegiren eta Euskara Batuen kondaira, Txillardegiren euskararen aldeko borroka) ere kontutan hartu behar ditugu ez errepikatzearen. Horrela, ondoan, eta adibide gisa: 1) azpimarratze batzuk egingo ditugu, galdera batzuen inguruan; 2) bi argitalpen hauen aurkezpena egingo dugu: a) *Hacia una Socio-Lingüística Matemática* liburua; b) *Bat. Soziolinguistika aldizkarian* Txillardegiren partehartzea.

- Nola ikusten du Txillardegik euskararen egoera? Galdera hau erantzuteko bide ezberdinak erabili ditzakegu: 1) azken hamarkadetako egoera bilakaerazkoa izan da, normalizazio prozesuan oraindik ere, “corpus” aldetik, bi zentzutan: bai euskara batua eraikitzen ari delako, zenbait pausu jarraituz, oraingo pausua ahozko erabileraren batasuna izanik, baita euskararen modernizazioa ere eraikitzen ari delako, hiztegi orokorrak alde batetik eta hizteki bereziak eta teknikoak bestetik eginez; 2) antzean esan dezakegu euskararen “estatus” aldetik ere, bilakaera luze batean gaude, normalizazio bilakaera mantso baten aurrean, zenbait arrazoiengatik: euskal hiztun elebakarrak galdu direlako eta euskaldunak bakarrik elebidunetan mantentzen direlako, baina espainera eta frantsesa elebakarrak dira gehiengoak Euskal Herrian; edo euskara menpeko hizkuntza delako: horrela espainera eta frantsesa beharrezkoak eta derrigorrezkoak direnez nonahikoak dira, baina euskara ez da beharrezkoa, eta borondatezkoa denez, batzutan bakarrik agirian egongo delako.
- Zer beharko luke euskarak hizkuntza normala izateko?: beste hizkuntza normalek dutena: bere unibertso berezia behar du izan; bere lurraldetasun berezia, gizartetan berezia, behartasun eta nahikotasun bereziak, etabar. Hori lortzen da Euskal Herriaren lurraldetasun osoarekin, alde batetik, eta euskararen ofizialtasun bakarrarekin, bestetik. Guzti hau errazen Euskal Herriaren independentziarekin lortuko litzateke, edo gutxienez Euskal Herriaren lurraldetasun eta burujabetasun bereziak lortuz, Suizan, Canadian edo Belgican bezalaxe. Bistan da egunean ez dugula ez egoera bat, ezta bestea ere. Kontestu honetan ikus daiteke norainoko tranpa handia den elebitasuna besterik gabe aldarrikatzea; zentzu honetan, elebitasun indibiduala beharrezkoa bada ere, elebakartasun soziala behar da eraiki, orain arte elebitasun soziala orekatua eta simetrikoa ezinezkoa gertatu delako; gurean ere, elebitasun soziala erabat desorekatua eta asimetrikoa dugu, euskara beti menpeko hizkuntza izanik, eta espainera eta frantsesa beti dominatzaile hizkuntzak izanik. Guzti honekin lotzen da egunean dagoen euskararen erabileraren egoera, gai nagusia Txillardegiren azterketetan. Zentzu honetan ulertzen da Txillardegik esaten duenean: “Ni ez naiz euskaltzale bihurtu politikoki abertzalea naizelako, baizik eta alderantziz; ni euskaltzale nintzen, eta euskaltzale izateak logikaz eraman nau planteamendu politiko abertzaleetara”, gorago aipatu dugun bezala.

### ***Hacia una Socio-Lingüística Matemática (2001).***

Txillardegik dion bezala, “una lengua es viva sólo en tanto se habla; es decir, en tanto se utiliza como instrumento de comunicación dentro de una comunidad”; “la supervivencia de la lengua vasca está esencialmente ligada a su *funcionalidad* en la sociedad vasca” (*La lengua vasca*, 1980); hau da, hizkuntzaren edo euskararen erabilera nola gauzatzen den da ondo ulertu behar den gauza. (liburu honen aurrekariak liburuan bertan aipatzen dira, 1973 urtean hasiz).

Aztertuko dugun liburua baino lehen, Txillardegi beste askotan mintzatu ohi da erabilerari buruz, beste kontzeptu batzuekin erlazionatuz: elebitasuna, diglosia, hizkuntzaren menpekotasuna eta interferentziak, etabar, adibidez *La lengua vasca* (Txillardegi, 1980) lanean. Naiz eta egunean, 2004 urtean, euskararen erabileraren egoera hobea izan 1980 urtean baino, orduan esaten dituen zenbait ideia bizirik mantentzen dira oraindik ere; adibidez: 1) euskaldun elebakarrak desagertu direla ikusteak dakarre euskararen erabilera ez dela beharrezko zerbait, baizik nahiez eta aukeraz batzutan gerta daiteken zerbait bakarrik; bestea da espainera eta frantsesa hiztunekin gertatzen dena, elebakarrak gehienak direnez, hauek bai egiten dute espainera eta frantsesa beharrezko hizkuntzak izatea; 2) hizkuntza-ukipen egoera asimetrikoa eta desorekatua da, euskaldunak ia denak elebidunak bihurtzen direlako, baina erdaldunak (espainera eta frantsesa hiztunak), ordea, gutxi egiten dira elebidunak; horrela, hizkuntza batean gehiengoan elebitasun indibiduala kontsidera daiteke hizkuntza baten desagertzearen edo hiltzearen bidean epe bat izatea; 3) funtzionalki, diglosia ematen da Euskal Herrian, gizarte elebitasuna edo elebitasun soziala desorekatua: espainera eta frantsesa edozein erabilera motatan normalean erabiliz, funtzionaltasun osoa izanez, baina euskara funtzio gutxitarako eta folklore

gisa erabiliz, euskararen bikoiztasunak sobera izatera eramanez; 4) euskararen ahultasun funtzionalak eragina du euskararen hizkuntzan ere, adibidez: euskararen dialektizazioa areagotze prozesuan, egunean iparra eta hegoaren artean gertatzen ari den bezala; edo euskararen ematen diren interferentziak zabaltze prozesuan, maila guztietan (fonetika eta fonologian, gramatikan, lexikoan), espainera eta frantsesa hizkuntzen bidetan euskara sartuz, bilakaera propioa jarraitu ordez. Honek erakusten du noraino lotuta dauden euskararen egoera linguistikoa eta funtzionala, edo euskararen corpusa eta estatua arteko egoerak, hau halako oinarritzko printzipio soziolinguistikoa izanez. Ideia guzti hauek daude hogeitalau urte pasa ondoren idatzitako *Hacia una Socio-Lingüística Matemática* liburuaren oinarrian.

Liburu honetan duguna da, hain zuzen, euskararen erabilera nola gauzatzen den azaltzeko eredu teorikoa, eredu fisiko-matematikoa kasu honetan. Fisiko-matematikoa izateak halako behin-betiko logika eta argitasun objetiboa ematen dio ereduari. “Isotropia” (hizkuntzaren erabilera emango da homogeenoki, hitzun guztiak hitzun guztiekin, elebakar edo elebidun diren hitzunak beraien artean komunikatzen direlarik) eta “anisotropia” (hizkuntzaren erabilera ez da homogeenoki emango, hitzun guztiak ez dira hitzun guztiekin komunikatuko, elebakar eta elebidun diren hitzunak beraien artean komunikatzen ez direnean) kontzeptuak dira ereduaren oinarritzko kontzeptuak; hau da, fisikan oinarritzen diren kontzeptuak dira. Ondoan, dibulgazio maila apaleko laburpen modukoa eskainiko dugu.

Gure kasuan ditugun bi hitzun talde motak dira: erdal elebakarrak osatzen duten talde homogeenoa eta elebidunak osatzen duten talde heterogeenoa edo mistoa, euskal elebakarrik ia ez dagoelako. Talde hauetako hitzunak binaka, hirunaka, launaka, etabar elkartzen direnean zein hizkuntzatan mintzatuko diren komunikatzen direnean, isotropikoki ala anisotropikoki, azaldu nahi du ereduak. Komunikazio egoeratan elebakarrek dute garrantzi handiena, baraiak erabilera hizkuntza inposatzen dutelako; elebidunek, ordea, aukera dezakete zein hizkuntzatan mintzatu, hizkuntza batekiko beren leialtasuna edo atxikimendua adieraziz. Egoera isotropiko batean erdaldunak inposatuko dira, erdararen erabileraren bitartez, talde tamaina handiago izanik orduan eta indar gehiagorekin; baina egoera anisotropiko batean leikena da euskara gehiago erabiltzea, elebidunak elebakarrekoekin nahastu ez badira egiten. Horrela, Txillardegik berak aipatzen duen bezala, euskararen erabilera ziurtatu daiteke bakarrik euskaldunek euskaldunekin komunikatzen badira, edo elebidunek euskara aukeratzen duten neurrian, hau da, euskararekiko atxikimendu berezia ematen denean. Horrela, egoera isotropikoa etnozida da euskararekiko. Kontzeptu honek eta Sánchez Carrión “Txepetx”ek (1987) adierazten duen “euskal eta euskaldun konpaktazio” beharra euskara erabili ahal izateko nahiko antzekoak dira.

Hizkuntza politika eta plangintza beti izan ditu Txillardegik kontutan, soziolinguistika aplikatua, eta ez bakarrik teorikoa, egin nahi duelako. Horrela, bere liburuan galdetzen du nola egin behar den euskararen erabilera indartzeko, eta hona hemen erantzuna: 1) anisotropia handituz, 2) elebidunen euskararekiko atxikimendua eta leialtasuna handituz, 3) elebitasun indibidualaren maila edo kopurua handituz, eta badirudi hirugarren hau dela, gure egungo egoeran, errazen izan daitekeena eta, horregatik, proposamen moduan ematen duena. Beste moduan esanda, euskararen ezagutza zabaltzea dirudi modu errazena dela, gaur, euskara beraren erabilera indartzeko.

### ***Bat. Soziolinguistika aldizkaria (1990-)***

Aldizkari soziolinguistikoa hau ildo bat da gure egoeran, ez delako batere erraza halako aldizkaria sortu eta duen iraupena lortzea, duen sendotasuna (4 ale urteko), kalitatea, sakontasuna, zabalkundea, partaidetza aberatsa, ...; euskalgintzan ildo bat dela esan dezakegu. Berriz ere ikusten dugu Txillardegik asmo honetan inplikaturik hasieratik, aldizkariaren lehen zuzendaria izan delako: hasieratik 1990ean eta 2001 urterarte (lehenengo 39 zenbakien zuzendaria); hasieran EKB (Euskal Kulturaren Batzarrea) erakundearen barruan eta 1999 urteaz geroztik (31 zenbakiarekin hasita) SEI (Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen)

erakundearen barruan. Hasieran *Bat. Soziolinguistika eta Glotopolitika aldizkaria* deitzen zena, eta gaur egun *Bat. Soziolinguistika aldizkaria. Hizkuntza normalkuntza eta glotopolitika aldizkaria* deitzen dena. Aldizkarian Txillardegik parte hartu du, bai zuzendaria zenean zenbaki gehienetan Sarrera edo Hitzaurre Gisa idazten zuelako, baita zenbait zenbakitan artikuluak ere idatzi dituelako.

Aldizkariaren helburua zein den edo zertarako sortu zen jakiteko, aldizkariko lehen zenbakiko Sarreran esaten denera etorri behar dugu. Pena merezi du sarrera honetako zenbait ideia errepikatzeak, orain ere baliagarriak direlako. Horrela, hasten da: “<<Bat-eginik ari gara; bat-eratu gaitezen>> idatzi zuen norbaitek, denok gogoan dugun ‘Bateginik’ kanpaina haren erdian. Hona hemen orain BAT aldizkaria, Euskararen aldeko mugimendu herritarra sendotzera eta bateratzera datorrena”; “... Euskarak batzen gaituela aitortu ohi dugu sarritan. Ez dugu uste, ordea, Euskara Euskal Herri eta gizarte historikoaz haraindiko ezer denik; alderantziz geure historia egunerokoan egiaztatu beharrean gaude euskaldunon bateratzailea dugula euskara, geure Herriaren desintegrazioari uko eginez”; “Kanpotik nahiz barrutik historian zehar -eta gaur- beren alde Euskara monopolizatu dutenek nahiz Euskararen kontra euskaldunak manipulatu dituztenek, herritarrok zatitzeko eta banatzeko erabili dute Euskara. Euskararen monopolizazioaren eta manipulazioaren kontrako protesta eginez abiatzen da BAT aldizkaria, aitormen oinarritzko honekin: <<Euskaldun -euskal herritar- guztiona eta guztiontzat da Euskara>>. Abiaburuan herritar guztiok batzen bagaitu gure hizkuntza nazionalak, guztiok horren berreskurapen osoaren ahaleginean bateratzea du helburutzat BATEk. Horretarako lekua ireki nahi du: albiste, azterketa, gogoeta eta kritikarako bateragunea. Bateragunea izango bada ere, ez da erdigunea aldizkari hau, euskara bera bait da euskaldun bakoitzaren eta euskal elkartearen ‘erdigunea’, Txepetxen hitzez. Erdiguneratze-prozesua da Euskararen berreskurapena eta euskaldunon euskalduntzea. Euskal Herriaren BATa historikoa Euskara da, izan ere. <<Hizkuntza ez da gramatika bat: Deklinazioa, Aditza, Sintaxia, hitzunek osotzen duten Hizkuntz Komunitate bat baizik>>, idatzi berria du Iñaki Larrañagak. Edonolako komunitatek bezala, bitariko dimentsioa du hizkuntzazkoak: barrurakoa eta kanporakoa...”; “Euskararen erdigunerako Herri osoaren bidegintza honetan bateratzeko deia zabaldu nahi du hasieratik bertatik BAT aldizkari honek: Kultur indar eta talde guztiak batera, erakunde publiko, pribatu eta herritar guztiak batera... Herritar guztiok batera! Bakoitza bere lekutik eta egoeratik, baina batera!”. Ideia hauek aiderazten ditu aldizkaria beraren izenak ere.

Aldizkariko lehen zenbakian ere Txillardegik, Aurkezpen gisakoan, esaten diguna kontutan hartzekoa da, berak aldizkaria nola ikusten duen adierazteko. Hona hemen aipatzen dituen ideia batzu: “Aurkezpen gisa Euskal Herriaren etorkizunari dagokionez, eta ideia hau zabaltzea eta sustraitzea kostata lortu bada ere, hizkuntza da ardatza. Eta abertzaletasuna gora doanez, gora doaz, era berean, euskaltzaletasuna eta nazio-hizkuntzari buruzko ikerlanak eta gogoetak. Euskal Herriko fenomeno, nolana ere, ingurugiro orokorrean kokatzen da. Joan den mendean nagusitu zen utopiari (hizkuntza bakar baten gainean egituratutako mundu batua), beste utopia bat gailentzen ari zaio gaur egun: herri ezberdinen elkarketan antolatuko den mundu-federazio anizkuna. Kazetak gaingiroki bederen irakurtzea aski da nazioen pizkunde orokorraren indarra senditzeko: Estonia, Eslovenia, Georgia, Palestina, Moldavia, Kurdistan, Tibet, Lituania, Armenia, Catalunya bera... Eta guztion nazio-hizkuntzaren arazoa, ardatz. Geronen hiztegian bertan somatzen da joera hazkor hori: hizkuntz borroka, glotofagia, hizkuntz soziologia, soziolinguistika, glotopolitika, hizkuntz plangintza... Hitz andana oso bat gizarte-hizkuntzaren inguruan... Gehiegitan aztertu izan dira hizkuntzak -esaten digute- hitzunik ahanztirik; eta, hitz batez, hitzunen erabilpenetik at. Nahiz hizkuntzak ezer ez izan hizkuntz ekintzotatik at. Gramatikeriak salatzen dira horretara han eta hemen. Eta Euskal Herrian gaitz berberak jasan ditugu: <<dadme la independencia política y una gramática y yo os solucionaré el problema lingüístico...>>. Baina Irlandak biak izan ditu, eta... zer? Berrero ere Euskal Herrira itzuliz, oso kontzientzia urria dago gure artean euskararen erabilpena ezinezko egiten duten baldintzei buruz. Oraindik ere, funtsean, azterketa sozio-politiko-ekonomiko horren beharraz ahazten bide gara maizegi. Zeren-eta, ‘de facto’, zerk debekatzen du gaur euskararen erabilpena? Poliziak debekatzen ez badigu (alegia, <<hable usted cristiano>> botatzen ez

badigu), zerk debekatzen digu elebidunoi euskararen erabilpena? Liberalismorik baikorren eta inioxoen hatzaparretan bizi gara euskaldunak oraindik. Gure nazio-hizkuntza berriro Euskal Herriaren mintzabide eta oinarri bihurtuko bada, beraz, bi gauza lortu behar ditugu; eta lorpen horretan laguntzekotan sortu da eskuetan duzun aldizkari hau. Bata, hizkuntzaren alorreko fenomenoak ahalik eta ongienik ezagutzea. Lehendabizi jakin egin behar da, egia ezagutu behar da al bait zehazkienik; beste herrietako saioak, arrakastak eta porrotak aztertu behar dira. Bestea, berriz, hizkuntz pizkundean herria bera interesatu gabe, soluziorik ez dagoela sinetsi eta sinesterazi behar dugu. Guespin eta Marcellesi soziolinguista famatuena hitzez esateko, <<on commence à mieux comprendre le caractère nécessairement volontariste des procès de construction-maintenance de la communauté linguistique>> (Glottopolitique, *Langages* 83, 1986ko Iraileko ale mamitsuan). Herriak ez badu nahi, herriak ez badu nazio-hizkuntzaren arazoa bere gain hartzen, jai dago. Horregatik, herri-mugimenduen zuzperketa guztiz da premiatsua (Québec-en edo Vlaanderen-en ikusi den bezala); eta, alderantziz, herri-mugimenduen ahulezia edo zafraketa (Irlanda, Britainia) guztiz kaltegarria. Baina herri-mugimendu horrek jakin egin behar du, ahalik eta ongienik eskolatu eta jantzi. Eta asmo horretan kokatzen da aldizkari hau: Soziolinguistikaren eta Glotopolitikaren alorrean azkarki erroturik dauden ideia nagusiak ezagutaraztea. Agian asmatuko!”.

Lehen sarrera gisako honetan adierazten dira Txillardegiren estiloko zenbait ezaugarri: barneko egoeraren ezagutzaz gain, kanpoko zenbait lekuko eta egoerako ezagutza zabala ere; euskara ardatza den bezala, euskararen erabilpena dela ardatzaren arazo nagusia; leialtasuna, borondatea eta nahiaren beharra aurre egiteko, euskararen normalizazioan; ezagutza soziolinguistikoaren beharra, ezagutzaren sozializazioaren beharra ere, hau aldizkariaren helburu nagusia izanik.

Berriz ere aldizkariaren helburuak Txillardegik aipatzen ditu, modu zehatzago batean, 1-30 zenbakietan argitaraturiko historia ematen den 33. zenbakian (1999): “1) Ikerketa eta formazioa bultzatzea, disziplinarrekotasuna ardatz hartuta; 2) Euskal Herrian hizkuntz normalizazioaren inguruan lanean dihardutenen topagune izatea; 3) Euskal soziolinguistikari buruz dagoen informazioaren bilgune izatea; 4) Nazioarteko normalizazioaren prozesoen jarraipena egitea.

*Bat. Soziolinguistika aldizkariaren* historian zerikusi handia du Txillardegik, neurri batean bere zuzendaritzapean antolatu direlako zenbakien edukiak eta egileak. Horrela, pena merezi du historia honen laburpen bat orain ematea (1999 urteko 30. zenbaki arte behintzat, orain). Aldizkariaren historiaren laburpen honetan horrelako lanak aurkitzen dira: 1) Hizkuntz normalizazioa bideratu eta gauzatu duten herrien kasoak aztertu dutenak: Flandria, Catalunya, Errepublika Baltikoak, Eire, Suomi Finlandiarena; 2) Euskal Herriaren beraren egoera ikertu dutenak: lurraldetasun printzipioa jarraituz, azpilurralde guztiak aztertu dutenak, Euskara batuaren bilakaera aztertutakoak, unibertsitate eta justizia alorreko euskararen egoera azaltzen dutenak, hizkuntz plangintza aztertzen duena Catalunya eta Euskal Herria alderatuz; 3) gaurko soziolinguistikak esaten duena ezagutarazten dituztenak: bai bertako ikertzaileak kontutan hartuz: Iñaki Larrañaga, Sánchez Carrión-Txepetx, Erramun Baxok, Lourdes Oñederra, ...; baita kanpokoak kontutan hartuz ere: Jean Laponce eta Richard Bourhis kanadiarrak, Argemi, Laporte edo Isidor Mari katalanak, Kas Deprez eta Armel Wynants fladriarrak, Einar Haugen norvegiarra (J. Fishman-en eskutik), Roland Breton eta Jacques Maurais frantsesak, Nancy Dorian, Ferguson, ...; 4) euskararen alorreko Institutuzio ofiziala eta ez ofizialekin zerikusi dutenak: Hizkuntz Politikako joerak, EUSTATEko inkesten emaitzak, SEIko euskararen kale-erabileraren neurketaren emaitzak, Euskal Herriko Unibertsitateko euskararen errektoreordearen edo Donostiako Euskara Zerbitzuko zuzendariaren gogoetak, etabar; 5) euskararen azterketan teoria matematikoak eredutzat hartuz aurkeztzen diren lanak, Txillardegiren eta Xabier Isasi-ren eskutik.

Txillardegik bere arrasto aberatsa utzi du *Bat. Soziolinguistika aldizkarian*, jadanik aipatu dugun bezala: bai zenbakien hitzaurretan, zenbakien edukiei buruz bere iritziak eta



gogoetak eginez, baita idatzitako artikuluetan ere, hauek gehienak beste hizkuntza eta herriei buruzkoak direlarik. Ematen dizkigun ideia aberatsen artean, batzuk aukeratu eta azpimarratuko ditugu orain: 1) euskararen normalizazio prozesua eta normalkuntza egoera nola ulertu behar diren esaten dutenak. Ideia nagusi bat da lurraldetasunaren beharra eta lurraldetasunarekin lotzen dena, hau da: Euskal Herria osoa bat da euskararekiko, eta euskara da Euskal Herriaren hizkuntza bakarra; 2) aurreko ideiarekin lotuta dator beste ideia hau ere: elebitasun soziala ez da egoera iraunkorra, tranpa moduan askotan aipatzen bazaigu ere, baizik desorekatua eta asimetrikoa izan ohi da; horrela denez, elebitasun soziala interpretatu behar da menpeko hizkuntzaren galtzearen edo hiltzearen aurreko etapa moduan; hau da, eleaniztasun indibiduala beharrezkoa badugu, egungo mundu globalizatuan, ezin bestekoa zaigu ere elebakartasun soziala euskararako lortzea, euskarak bere unibertso eta bizitza propioa izan ditzan; 3) horretarako prozesua, ordea, konplexua da: hizkuntzaren ofizialtasuna behar da, baina alderdi juridikoa ez da aski hizkuntzaren iraupena eta garapena ziurtatzeko, ezin bestekoa da baita ere herriaren inplikazioa prozesuan, herriaren atxikimendua eta nahia prozesua bultzatzeko; edo bestela esanda, erakunde ofizialen eta herri mugimenduen arteko batasuna behar dira, egungo egoeran, euskarak aurrera egingo badu; 4) euskararen bizitza euskararen erabileraren bitartez adierazten da; horrela, euskararen erabilera da zutabe nagusia euskara zein normalizazio mailan dagoen neurtzeko, eta hau ahalik eta modu objetiboenean neurtzeko asmatu eta proposatu du Txillardegik, hain zuzen, bere teoria matematikoa (bere eredu matematikoa euskararen erabilera azaltzeko aurkezten du 3/4. zenbakian, 1991); alde honetatik begira, aurretik ere bere teori matematikoa erabilia eta aurkeztuta bazuen ere, orain aldizkarian aplikatzen du beste ikerketak ematen dituzten datuak interpretatu ahal izateko; bestalde, lan hau bere *Hacia una Socio-Lingüística Matemática* liburuaren aurrekari moduan har daiteke; 5) euskararen erabilera objektiboa da neurtu behar dena, erabilera erreala da kontatzen duena, naiz eta alderdi subjektiboak ere beharrezkoak izan, gutxienez elebidunek euskararekiko leialtasuna eta atxikimendua izan behar dutelako euskaraz mintzatzea aukeratzekoan, anisotropikoki; hau da, euskararen erabilera gehienbat arazo soziologikoa bada ere, baita da neurriren batean arazo psikosoziala; 6) euskararen erabilerarik gabe ez dago Euskal Herririk, horregatik euskararik gabe ez dago abertzaletasunik eta ez dago euskal politikaririk euskaratik aparte; azken finean, euskararen arazoa arazo politikoa da eta horrela hartuz bakarrik euskarak lortu dezake bere normalkuntza egoera: onenean, Euskal Herriaren independentzia lortuz edo, gutxienez, nahiko burujabetasuna lortuz, Québec-en edo Flandria-n moduan; Mackey-ek esaten duena errepikatuz: “Hizkuntzaren berreskurapena ez da fenomeno autonomoa, lau izari ditu: kultura, demografia, geografía, politika” (*Bat*, 9); 7) euskalgintzan, beharrezkoa da batasuna, erakunde ofizialen eta herri mugimenduen arteko elkartasuna, denen beharra dago euskararen normalkuntza lortzeko, askotan nahiko nekeza gertatzen zaiguna; Txillardegiren arabera, euskararen aldeko herri mugimendua oso aberatsa da eta oso zabaldua dago, alderdi honetatik behintzat badirudi ez gaudela horren egoera txarrean; ...

Hemen bukatuko dut lantxo hau, Txillardegiren omenez egina, berriz ere bera goratuz. Bizitzan bezalaxe, argitalpenetan ere argia, sortzailea, aurrekaria eta futurista, kritikoa, aberatsa, sakona, ausarta, koherentea, benetan intelektuala eta irakasle gure artean, paradigmatikoa eta eredua euskararen eta Euskal Herriaren historian: mila esker ba, Txillardegi, maisu izan eta zarelako eta zorionak ere guzti honegatik!